

ETA ORAIN ZER (ETS)

Itzuli nahi dut berriro nire etxera
Azkenengo urtetan urrundu dudana
Baina ez dut aurkitzen benetako bidea
Ta nekea lapurtzen hasi zait arnasa
Harri bat bihotzean aspaldi daramat
Nire barne mundua ez da dirudiena
Benetan sentitzen dudan gauza bakarra
Zurekin bizi nahi dudala itzulera

Gelditu nahi dut orain errepide honetan
Dena azkar dihoa, zertan ari gara? Zertan?
Gelditu nahi dut bizitzen zure begietan
Zu esnatzerakoan, bertan egon nahi dut bertan
Zertan ari gara? Zertan?

I

tzuli nahi dut berriro nire etxera
Azkenengo urtetan urrundu dudana
Baina ez dut aurkitzen benetako bidea
Ta nekea lapurtzen hasi zait arnasa
Ondo dakit ez dakidala nola jasan
Nire harrotasuna, nire kontraesanak
Gorde ondo barruan behingoz ondo eginak
Ta barkatu orain arteko gaizki esanak

Ta orain zer? Dena aldatzen ari da
Orain zer? Zarata hau gehiegi da
Orain zer? Itzuli nahi dut etxera

Zure begien ertzera

Ta orain zer? Dena aldatzen ari da
Orain zer? Zarata hau gehiegi da
Orain zer? Itzuli nahi dut etxera
Zure begien ertzera

Zeren milaka miloi kontraesanek
Osatzen dute nire bizitza
Zeren milaka miloi buruhaustek
Itotzen naute barne kartzelan

Gelditu nahi dut orain errepide honetan
Dena azkar dihoa, zertan ari gara? Zertan?
Gelditu nahi dut bizitzen zure begietan
Zu esnatzerakoan, bertan egon nahi dut bertan

Gelditu nahi dut orain errepide honetan
Dena azkar dihoa, zertan ari gara? Zertan?
Gelditu nahi dut bizitzen zure begietan
Zu esnatzerakoan, bertan egon nahi dut bertan

Ta orain zer? Dena aldatzen ari da
Orain zer? Zarata hau gehiegi da
Orain zer? Itzuli nahi dut etxera
Zure begien ertzera

Gelditu nahi dut orain errepide honetan
Dena azkar dihoa, zertan ari gara? Zertan?
Gelditu nahi dut bizitzen zure begietan
Zu esnatzerakoan, bertan egon nahi dut bertan

Ta orain zer? Ta orain zer?

Ta orain zer? Ta orain zer?